



Haur Hezkuntza

3. modulua: KOMUNIKAZIO GAITASUNAK **Diziplinararteko lana (DALa) egiteko gida**

2025-2026

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
DALaren aurkezpena.....	3
1.1. Aurkezpena	3
1.2. Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI)	3
2. Ebaluazio jarraia eta ez-jarraia.....	4
3. Gaitasunak eta ebaluazio emaitzak	5
3.1. Modulu guztien DALaren gaitasun komunak.....	5
3.2. Moduluaren ikaste emaitzak	6
4. DALaren garapena	7
4.1. Arazoaren deskribapena	7
4.2. Faseak eta ematekoak	8
4.3 Kronograma.....	9
4.4. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak	9
4.5. Entregagaien oinarrizko alderdiak	10
5. DALaren ebaluazioa.....	10
5.1. Lanaren ebaluazio irizpideak	11
Erreferentzia bibliografikoak	12
Eranskinak.....	13
1. Eranskina: Entregagaiak egiteko gida	13
2. Eranskina: Aktak jasotzeko txantiloia	16
3. Eranskina: Taldearen autoebaluazioa egiteko txantiloia	17

DALaren aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Eguno jendartean eta eskolan gertatzen ari diren aldaketak (dela irakaskuntza digitalaren baliabideak, dela irakasteko metodo eta konpetentzien definizio berriak, dela euskararen ofizialtasunari, dela hizkuntzen eta kulturen aniztasuna) irakasleen lanbideak eta bere komunikazio-gaitasunak prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatuko die ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturean integratua eta "ikasten ikasi" konpetentzian oinarrituta, ikasketa prozesu kolektibo aberasgarri gisa ulertuta eta ikaslea ikasketa prozesuaren erdigunean jarrita.

Idea hori abiapuntutzat hartuta, Bilboko Hezkuntza Fakultateak eta bertako Sailek beste prestakuntza-egitura bat hautatu dute; banakako lanen eta diziplina elkarketaren ordezt, talde-lana eta diziplinartekotasuna sustatzea. Horregatik aukeratu da egitura modularra eta horietan landuko diren metodologia; horrela, eskolako egoeren edo arazoen berri izateko eta horiei buruz hausnartzeko.

Haur Hezkuntzako 2. mailaren hasieran egiten da 3. modulu hau eta bere izenburua KOMUNIKAZIO GAITASUNAK da. Beraz, komunikazio gaitasunak garatuko dira diziplinartekotasunean honako lau irakasgaiek lagunduta:

- Haurtzaroaren Psikologia.
- Informazio eta Komunikazio Teknologia.
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena II.
- Ikastetxearen Antolakuntza.

Gaitasun komunikatiboak oinarritzotzat jotzen dira edozein irakaslerentzat, baina bereziki garrantzitsuak dira haurtzaroan; izan ere, hizkuntzaren jabeakuntzari dagokionez, Luri-k (2020) aipatzen duen bezala, haurren hiztegi maila gerora eragin handia izango du hauen garapen pertsonalean eta akademikoan.

1.2. Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI)

AOI metodologia ezagutzaren ikuspegi globala hartzen du abiapuntu eta pentsamenduaren prozesu osoa biltzen du bere baitan. Beste metodologia batzuk bezala, arazoetan oinarrituriko ikaskuntzaren oinarria ezaguna da; izan ere, kontzeptuak fenomeno behagarrien bidez ulertzen dira eta, hortaz, ikasteak gauzeekin kontaktu zuzena izatea eskatzen du.

Horrela, metodologia honek helburu bikoitza du: batetik, ikasleak arazo jakin batzuetan jarri eta ikasitako kontzeptuak gogoratu, berrulertu eta berrerabiltzea, eta bestetik, kontzeptu horien bidez ikasleek arazoak konpondu edo bizi diren komunitatea hobetzeko proposamenak egitea.

Arazoetan oinarrituriko metodologia aktiboan hainbat fase daude: i) jarraitu beharreko urratsak planteatu, ii) arazoaren ebazpena planifikatu, iii) lan-taldean ardurak banatu, iv) teoria aplikatu, v) planteatutako arazoaren konponbidea proposatu, vi) ebazpen bat garatu, vii) bestelako

ebazpenen bideragarritasuna aztertu, viii) soluzio egokiena aukeratu eta ix) soluzio horretara heltzeko hartu diren erabakiak justifikatu.

Brandaren (2008) arabera Arazoetan Oinarrituriko Metodologiak beste ikasteko metodo batzuek baino ikasketa esperientzia aberasgarriagoa eta benetakoagoa eman diezaiekeela ikasleei; izan ere, arazoetan oinarrituriko ikaskuntza gauzatzeko, diziplinartekotasuna eta elkarlana funtsezkoak diren testuingurura hurbiltzen da. Dena den, Lurik (2020) eta Garcia et al. (2024) aipatzen duten bezala, AOMak eraginkorrak izateko ikasleek lehendabizi oinarri teoriko sendoa izan behar dute, bestela metodologia hauek ez dute ikasketarik bermatzen. Lanaren garapenean sortzen diren arazoak edo gabeziak konpontzeko, aurretik literatura zientifikoan dagoena irakurtzea beharrezkoa izaten da. Lankidetzaren giro horretan, ikasleek elkarlanean gara ditzakete norbere konpetentziak eta eskolako arazoak konpontzeko oinarrietara hurbil daitezke.

2. Ebaluazio jarraia eta ez-jarraia

Ebaluazio jarraia egiten duten ikasleek DALa egin behar dute, matrikulatutako irakasgaien programa ofizialetan agertzen den bezala. Lan horretan lortutako notak 3. moduluko irakasgai bakoitzean kalifikazioaren % 16 hartuko du, irakasgai bakoitzaren gidan zehazten den bezala. Beste irakasgaietan bezala, DALean ere lortutako nota ikasturte bakoitzaren ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da.

Ebaluazio ez-jarraitua aukeratu duen ikasleak, justifikatutako arrazoiengatik (UPV/EHUko araudia, lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, % 33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), irakasgai bakoitzeko azterketa ofizialean DALari lotutako galdera bat erantzutea egokituko zaio, baldin eta irakasgaiaren gidan horrela zehaztuta baletor. Galdera honen balioa % 16koa izango da, irakasgaiaren gida ofizialean deskribatzen den moduan eta bere kalifikazioa ikasturte bereko ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da.

Horretarako, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzia aurkeztu beharko dio moduluko koordinatzaileari edo graduako titulazio-arduradunari dagozkion epeetan.

Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

3. Gaitasunak eta ebaluazio emaitzak

3.1. Modulu guztien DALaren gaitasun komunak

Honakoak dira 3. moduluaren gaitasunak, atazak eta ebaluazio irizpideak.

GAITASUNAK	EMATEKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Informazio eta komunikazio baliabideak (IKTak, bibliotekak, fonotekak, besteak beste) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.	Txosten idatzia	Informazio iturriak erabiltzea eta erreferentzia bibliografikoak egoki erabiltzea (APA arauak).
	Ahozko Aurkezpina	Aurkezpina modu formalean egitea eta aurkezpenerako diskurtso-egiturak hizkuntza baliabideekin nabarmentzen jakitea
Ahoz eta idatziz zuzen eta egokitasunez egitea, adierazpide oparoak erabiliz	Txosten idatzia	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpina koherentea izatea. Aurkezpenean aipatutako ideiak txosten idatzian landuak izatea.
	Ahozko aurkezpina	Zuzentasun linguistikoa. Gaiari dagozkion terminoak erabiltzea. Ideien aurkezpina koherentea. Jariotasuna eta argitasuna azaltzean.
Estrategia didaktikoak diseinatzea komunikazioa (ahozkoak, idatziak, ikus-entzunezkoak, eta gorputzezkoak) aberastuz garapen integralerako	Txosten idatzia	Azken aurkezpeneraren eta txosten idatziaren arteko koherentzia.
	Ahozko aurkezpina	Komunikazio trebetasunak erakustea. Berba txandak errespetatzea eta taldekideek esandakoa kontuan hartzen jakitea.
Taldean lan egitea parte hartzea, ardura, autoestimua, sormena, adiskidantza, askatasuna, erlaxazioa, dibertsioa, bizipoza eta kontzentrazioa sustatuz unean uneko jardunetan.	Taldearen auto-ebaluazioa	Hasieratik lan talde moduan antolatu: taldearen helburuak adostea, funtzioak, denbora, guneak eta gatazkei aurre egiteko erak, besteak beste. Adostutako lan-plan bat egitea eta berorri jarraitu edo plana aldatu (egokiro justifikatuz) beharrezkoa izanez gero. Modulu gidari jarraitu. Epeak bete.

3.2. Moduluaren ikaste emaitzak

Honakoak dira 3. moduluaren ikaste emaitzak:

- Haur Hezkuntzako irakaslegaiak identifikatzen du egoera jakin baten komunikazio-arazoa eta protagonista bakoitzak duen rola.
- Badaki zer den IKTak egoki erabiltzea eskola inguruko eragileen arteko komunikazioan, bereziki Haur Hezkuntzan.
- Ikastetxearen egiturak (formala eta ez formala) hezkuntza eragileen arteko komunikazioan duen garrantzia aztertzen eta baloratzen du.
- Badaki familiekiko komunikazioa egokiro egiteko beharrezko baldintzak zein diren, hezkuntza-dimentsioan.
- Protagonista desberdinen egoerak ulertzeko gai da eta enpatia du pertsona horiekin eta aintzat hartzen ditu ikuspuntu ezberdinak.
- Komunikazio-faktore horiek eskolako giroan eta haurren garapen psikosozialean duten eragina kontuan hartzen du.
- Familiaren eta eskolaren arteko elkar-lana sustatu
- IKTak erabiltzen ditu informazio-iturri ezberdinak arakatzeko, informazioa kudeatzeko eta eskolako komunikazioa sustatzeko.
- Familiekin komunikatzeko behar diren testu idatziak eta ahozko adierazpenak ekoizten ditu, dagokien formatua errespetatuz, hartzailleari eta egoerari egokituta, eta komunikazio-helburua betetzeko gai da behar den argitasunaz, zuzentasunaz eta egokitasunaz.

4. DALaren garapena

4.1. Arazoaren deskribapena

Planteatzen den arazo-egoera honako hau da:

Ikasleen garapenerako onuragarria izango den proiektu berritzailea martxan jarri nahi dute eskolan, zuek (lerro ezberdinetako tutoreak) gurasoei komunikatzeko bilera eta aurkezpena prestatu behar duzue, euren onespena eta laguntza bermatzeko.

- **“Berritzailea”** aipatzen denean, eskola horretan egiten ez den zerbait adierazi nahi da, ez norberari etortzen zaion oinarri gabeko “asmakizun” bat.

Modulua egiteko metodologia hauxe da:

1. Hasierako fasean taldeak osatuko dira, osaketaren aktan jasoko dira hartutako erabakiak eta landuko den arazoa.
2. Horren ondoren, arazoa definituko da. Behin arazoa aukeratuta, arazo hori lantzeko informazioa bilatuko da.
3. Lanaren funtsezko atala bilera bat prestatzea izango da. Bileraren bidez, proiektuaren berri emango zaie ikastetxeko familiei, eta proiektuan inplikatzera eta parte hartzera gonbidatuko dira.

Modulu-lan hau diziplina arteko lana denez gero, nabarmendu nahi dugu aukeratu den arazo-egoeraren zergatien nolakotasuna diziplina artekoa izan behar dela edo, beste era batera esanda, arazoa aukeratzeko arrazoieta moduluaren dauden lau irakasgaien gaitako ikuspegiak, erreferentzia bibliografikoak (gutxienez 2 irakasgaiko) edo gaiak aipatu behar direla.

4.2. Faseak eta ematekoak

FASEA	Galdera eragileak	Zereginak	Ematekoak	%	Noiz- nola auzetu
o. Taldea eratzea	Nola eratuko dugu taldea?	Taldekieei rolak eta zereginak esleitzea	1. Taldearen eraketaren eta bileren akta.	5	1. akta 8. astean. Gainerakoak bukaeran.
1. Egoera aztertu eta agertokia definitu.	Ikastetxearen ezaugarriak: hizkuntza eredu (D eredu, B eredu), ikasle irakasle kopurua, Haur Hezkuntza etapako ezaugarriak. Erantzun nahi zaion arazoaren ezaugarriak	Definitutako arazoaren azterketa, parte hartzen duten eragileak kontuan hartuta (familiak eta eskola). Eskoletako informazioa bildu webguneetan	2. Hasierako txostena: (2 orri). 2.1. Arazoa deskribatu: elkar eragiten duten elementuak, buru-mapa bat egin. 2.2. Kronograma (lana planifikatu).	5	8. asteko amaierako tutoretza saioan.
2. Nola bideratuko dugu arazoa?	Zer egingo dugu? Zer jakin nahi dugu? Nola lortuko dugu? Noren artean bideratu behar da komunikazioa? Zein balio sustatu nahi dugu? Zeintzuk dira tresnarik egokienak?	Helburuak argitu. Informazioa bilatu, aukeratu eta aztertu, hainbat iturri erabilia. Lanerako gidoia prestatu eta egin beharreko ekintzak zehaztu.	3. Txostena osatua: Zer esan behar dugu? (Testua) Nola esango dugu? Deialdia. Erabilitako materialen ekarpenen deskribapen laburra (biblio eta webgrafia, elkarrizketak, etab.).	30	Lauhilabetearen 11. astean bukaera
3. Ahozko aurkezpina	Nola laguntzen du egindakoak hezkuntza-komunitatearen arteko komunikazioa errazteko? Zein baliabide erabiliko dugu aurkezpina egiteko?	Egindako lana aurkeztea.	4. Aurkezpina (notaren% 10 ikasle bakoitzari emango zaio eta% 30 talde osoari).	40	Lauhilabetearen azken astean (15.a)
4. Gogoeta eta ebaluazioa	Zer ikasi dugu? Nolakoa izan da taldearen prozesua?	Egindakoari eta ikasitakoari buruzko gogoeta eta ebaluazioa	5. Autoebaluazioa.	20	

4.3 Kronograma

Astea	Hilabetea	Egutegia
1	Iraila	Irakasgaiak, ordutegi arrunta
2		
3		
4	Urria	Practicum I
5		
6		
7		
8		
8		MODULUko 1. astea
9	Azaroa	Irakasgaiak, ordutegi arrunta
10		
11		MODULUko 2. astea
12		Irakasgaiak, ordutegi arrunta
13	Abendua	
14		
15		MODULUKO aurkezpena

4.4. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak

DALa egin bitartean aurrez aurreko saio batzuk egin behar dira, bai ikaskide guztiekin, bai taldearekin. Saio horiek honela banatuko dira:

- **DALaren aurkezpena.** Ikasle guztiak batera, ikasturteko lehen asteko lehen saioan.
- **Ikasgaien ekarpenak DALari:** Irakasgaien edukiak landuko dira, irakasgai bakoitzaren lehen ordu magistraletan.
- **Tutoretza saioak:** lantaldearen tutoreak bere taldeekin egingo dituen saioak. Talde bakoitzak lan egutegi bat ezarriko du, tutoretza-saioak noiz egingo diren eta lanak noiz entregatuko diren zehaztuz. Gutxienez, bi tutoretza egingo dira:

- Hasierako saioa: bi orduko saioa izango da gutxi gora behera, DALaren aurkezpenaren ostean. Helburua: taldea osatzea, egoera aukeratzea eta bertan parte-hartzen duten elementuak definitzea eta kronograma egitea (8. astean).
- Segimendu-saioa: zalantzak argitu eta arazoaren ebazpenaren gorabeherak aztertuko dira. Tutorearekin adostuko da (11. astean).
- **Proiektuak aurkezteko saioa:** lanaren aurkezpena eta defentsa ikaskideen eta tutorearen aurrean (15. astean).
- **Ebaluazioa edo berrikuspena:** irakasleak kalifikazioak eman ondoren irakasleak egun eta ordu-tartea zehaztuko ditu (azterketa ofizialarekin bat) aurretik).

4.5. Entregagaien oinarritzko alderdiak

Entregagaiak egiteko orientabideak dokumentu honen 1. eranskinean daude. Horretaz gain, ezinbestekoak diren ezaugarriak nabarmentzen dira hemen:

Hizkuntza gaitasuna: Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia ezinbestekoa da. Adierazpide linguistikoa zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean -beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik-, lana itzuliko da eta ez da bere osotasunean zuzendu beharko, ikasle-taldeak lana zuzendu arte. Honako ezaugarri akademikoak hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Diskurtsoaren ulergarritasuna eta argitasuna.
- Hiztegia eta ortografia.
- Morfosintaxia: deklinabide egokia eta komunztadura zuzena.

Plagioa: Ezin da beste batek egindako lanik kopiatu edo imitatu, norberak egin balitz bezala. Irakasleak APA7 aipamen arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta ez da DALa gaindituko deialdi horretan.

5. DALaren ebaluazioa

Haur Hezkuntzako Titulazio Batzordeak adostutakoari jarraituz:

DALa diziplina arteko lana da eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Horren ebaluazioa jarraitua izango da eta honetan oinarrituko da:

- Lan idatziak, adostutako datetan entregatuko direnak.
- Egindako lanaren ahozko aurkezpena.
- Tutoretza-saioak dagokion tutorearekin.

Irizpide horiei jarraiturik, lanaren ebaluazioa egiteko kontuan hartuko dira 4.2. azpiatalean zehazten diren ematekoak eta azpiatal honetan behean zehaztutako irizpideak. Taldeek tutoreari aurkeztuko dizkiote ematekoak, adierazitako epean eta zehaztutako euskarri eta formatuan.

Aurkezpen formala eta ahozko defentsa ikaskideen aurrean egingo da. Formatua aldez aurretik tutorearekin adostuko da; 15 eta 30 minutu artean iraungo du. Alabaina, idatzizko txosten bat ere aurkeztu beharko da, 10 orrialdekoa gehienez (gehi eranskinak).

Testu idatziak direnean, Times New Roman, Arial edo Calibri hobetsiko da eta 12 tamainako formatua erabiliko da.

Oro har, ebaluazioa egiteko honako hauek hartuko dira kontuan: gidan adierazitako atal guztiak, gaiari dagokion terminologia egoki erabiltzea, zuzentasunez eta egokitasunez idaztea eta mintzatzea.

Horrez gain baloratuko da:

- Informazio iturri desberdinak erabiltzea (erreferentzia bibliografikoak).
- Norbanakoak talde-lanaren dinamikara egokitzea (txostenaren antolamendu koherentean islatuko da hori) eta ahozko aurkezpenak zuzenak, argiak eta koherenteak izatea.
- Ondorioetan analisi sakona adieraztea, lanaren mugak ondo aipatuz.

DALari emandako kalifikazioa 3. moduluko irakasgai guztien azken kalifikazioaren %16 izango da eta kalifikazioa honela osatuko da: taldearen autoebaluazioari % 20 dagokio, eta tutoreari % 80 (% 70 talde osoari eta % 10 ikasle bakoitzari).

DALa gainditzeko, gutxienez, 5 atera behar da 0tik 10era bitarteko eskalan. Lana gainditzen ez duten ikasleek ohiz kanpoko deialdian irakasgai bakoitzeko azterketako galdera bete beharko dute, irakasgaiaren gidan horrela adieraziko balitz.

5.1. Lanaren ebaluazio irizpideak

DALaren ebaluazioan hauek izango dira eskatuko diren ematekoak eta baloratuko diren portzentaiak:

Fasea	Ematekoa	Ebaluazioa %
Taldea eratzea	1. akta	% 5
Agertokia definitu eta egoera aztertu	Buru mapa edo eskema (orrialde 1) + kronograma (orrialde 1)	% 5
Nola bideratuko dugu arazoa?	Txostena	% 40
Aurkezpena	Aurkezpena	% 40
Gogoeta eta Ebaluazioa	Autoebaluazioa	% 10

Erreferentzia bibliografikoak

Branda, L. A. (2008). El aprendizaje basado en problemas: el resplandor tan brillante de otros tiempos. In U. Araujo & G. Sastre (Koord.), *El aprendizaje basado en problemas: una nueva perspectiva de la enseñanza en la universidad* (283-289 orr.). Gedisa.

García Fernández, O., & Galindo Ferrández, E. (2024). Aprendizaje basado en proyectos: Un aprendizaje basura para el proletariado. Akal.

Hernández, F. (1998) Repensar la función de la Escuela desde los proyectos de trabajo. *Patio, Revista Pedagógica*, 6, 26-31.

Hernández, F. (2000). Los proyectos de trabajo: la necesidad de nuevas competencias para nuevas formas de racionalidad. *Educación*, 26, 39-51.

Luri Medrano, G. (2020). La escuela no es un parque de atracciones: Una defensa del conocimiento poderoso. Editorial Ariel.

Morales, P. (2007). Nuevos roles de profesores y alumnos, nuevas formas de enseñar y de aprender. In L. Prieto (Koord.), *La enseñanza universitaria centrada en el aprendizaje* (17-29 orr.). Octaedro.

Eranskinak

1. Eranskina: Entregagaiak egiteko gida

1. ematekoa. Aktak: talde eraketarena eta bileren aktak
Lan taldearen saioen erregistroa egitea da helburua.
Noiz eta nola: Lehenengo akta 1. astean entregatuko da, eta gainerakoak azken txostenarekin batera. Erabili beharreko formatua aldez aurretik adostuko da tutorearekin: paperean edo formatu elektronikoan.
Ebaluazioa: Azken notaren% 5 balioko du, eta honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: Akta eredua: puntu guztiak barne hartzen ditu (ikus 2. Eranskina). Gutxieneko akta kopurua. Aktaren edukia: beharrezkoak diren atal guztiak aipatu dira, edukia eta forma argiak dira. Lanaren inguruko gogoeta aurkezten du.
2. ematekoa. Hasierako txostena
Bi orritan: a. Egoera deskribatzea: elkar eragiten duten elementuak erlazionatu. Buru mapa egin. b. Kronograma (lana planifikatzea).
Noiz eta nola: Lehenengo asteko amaierako tutoretza saioan.
Ebaluazioa: Azken notaren% 5 balioko du. Orri kopurua: 2. Kontuan hartuko da: - Adierazpenak argia izan beharko du (mapa mentala, taula); elkar eragiten duten elementuen arteko harreman egokia ezarri beharko da. - Lanaren plangintza: etapa eta zeregin guztiak jaso behar ditu. Hasierako plangintza orokorra izango da. - Formarekin lotutako zehaztasunak.

3. ematekoa. Amaierako txostena

Gehienez 10 orri izango ditu (gehi eranskinak). Atal hauek bereiztuko dira:

Azala

Aurkibidea

Sarrera

1. Egoeraren azterketa. Kontestualizazioa
2. Helburua(k) formulatu
3. Informazio bilaketa: Bilaketa bibliografikoaren emaitzak eta ikasgaien ekarpenak labur deskribatzea (bibliografia/webgrafia, elkarrizketak, irakasgaien ikuspuntua)
4. Arazoa konpontzeko esku-hartzea

Zer esan behar dugu? Nola esango dugu?

Deialdia

5. Ondorioak- hausnarketa

Erreferentzia bibliografikoak

Eranskinak

Garrantzitsua: ikus 4.5. atala.

Noiz eta nola:

Emateko hau DALaren azken astean (lauhilabetearen 8. astean) aurkeztuko zaio tutoreari. paperean, eGela bidez edo adostutako bestelako eraren batean.

Ebaluazioa:

Azken notaren% 30 balioko du, eta honako irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Iturri aniztasuna.
- Erabilitako materialen kalitatea.
- Sintesirako gaitasuna.
- Eskemaren egokitasuna arazoarekiko.
- Diseinua egoerari eta ezarritako helburuei egokitua egotea.

4. ematekoa. Aurkezpena
Familiei egingo zaien bilera eta aurkezpena
Noiz eta nola: DALaren azken astean (lauhilabeteko 15.a). Aurkezpenaren formatua Powerpoint edo parekide baliabidean izango da; honetaz gain, bestelako errekursoak ere erabili daitezke (bideoa, ...), irakaslearekin aldez aurretik adostua, eta betiere oinarrizko gidoi idatzia egongo da.
Ebaluazioa: Azken kalifikazioaren %40 izango da. Honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan: moduluko eremu guztiak barne hartzea eta proposamena familiekiko komunikazioa sustatzeko egokia izatea. Aurkezpenari dagokionez, kontuan hartuko da: edukien kalitatea, erabilitako ikus-entzunezko euskarria eta irakasgaiak barne hartzea.
5. ematekoa. Autoebaluazioa
Helburua da taldekideek amaierako lanaren eta taldearen funtzionamenduaren eta dinamikaren ebaluazioa egitea.
Noiz eta nola: DALaren bukaeran. Tutorearekin egingo den azkeneko saioan.
Ebaluazioa: Auto-ebaluazioak azken kalifikazioaren %20 balioko du. Ikusi 3. Eranskina.

2. Eranskina: Aktak jasotzeko txantiloia

Lan saioaren akta			
Taldearen izena:			
Eguna:	Lekua:	Hasiera ordua:	Amaiera ordua:
Etorri direnak:			
Koordinatzailea:		Aktagilea:	
Aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak:			
Hurrengo egunerako eginkizunak eta oharrak:			

3. Eranskina: Taldearen autoebaluazioa egiteko txantiloia

Taldearen izena: Kalifikazioa (zenbakitan):
Hausnarketa egiteko ideiak
Banakako hausnarketa: Nola sentitu naiz taldean. Lan-saioetara joan naiz eta esleitutako zeregina bete dut. Lankidetzan- eta laguntza-maila taldeko gainerako kideei. Zer ikasi dut.
Taldeari buruzko hausnarketa: Kide guztien iritzia eta ikuspuntuak aintzat hartu dira. Taldekide guztien konpromisoa eta jardura orekatuak izatea lortu da. Taldean definitutako rolak errespetatu dira. Bileren lan-plana planifikatu da eta proposatutako helburuak bete dira. Denek bete dute esleitutako ataza aurreikusitako epean.
Atazari buruzko hausnarketa: Egindako proiektua, aplikazio praktikoa izateaz gain, etorkizunean erabil daiteke. AOI metodologia ikasi dugu. Irakasgai guztiak proiektuan islatu dira. Gure aurkezpena izan da:
Etorkizunera begira: Aurkeztutako proiektuaren eta lan-dinamikaren hobetu beharreko alderdiak – zer eta nola.

